

# NIRE BELDURRIK MAITEENAK



PRODUCCIONES  
MAESTRAS

Taldeak  
aurkezten du

Familia osoari zuzendutako  
komedia dibertigarria



Dramaturgia eta Zuzendaritza

**Ana Maestrojuán**

Antzezleak

**Iker Bengotxea - Xabier Artieda**

Diruz laguntzen dute



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Udala

Laguntzaileak

GAYARRE ANTZOKIA  
UDAL FUNDATZIOA



FUNDACIÓN MUNICIPAL  
TEATRO GAYARRE



Ayuntamiento  
de **ANSOAIN**



ANTSOAINgo  
udala

# NIRE BELDURRIK MAITEENAK

**Zeren beldur gara beldur garenean?  
Beldurak beldurra ematen digu?  
Zenbat beldur dago gure beldurrean?**

Galdera hauekin obsesionatuta daude Von Simon irakaslea eta Von Soria irakaslea, gure zientzialariak. Bere laborategian beldurra sortu dezaketen formulak estutu, bihurritu eta maneiatzen dituzte.

Baina, noski, beldurra ikertzeak beldur handia ematen du. Gure zientzialari bikainek aurrez aurre aurkituko dituzte beldur horiek eta haien mutazioak, beldurraren benetako formula bilatu eta aurkitu nahian dabiltzan bitartean.

**“Nire beldurrik maiteenak”** haurtzaroan sortu eta, askotan, helduaroan oraindik ere gure aldameneari jarraitzen duten beldurretatik bidaia dibertigarria da.

Hainbat beldur dibertigarri ikusiko ditugu desfilean gure aurrean ikuspegi ezberdin batetik, beldurra existitzen dela eta berarekin bizi behar dela ulertzeko.

## Ikuskizun dibertigarria familia osoarentzat

**Producciones Maestras Taldeak** familiarteko ikuskizun baten aldeko apustua egin du berriro ere. Eta oraingoan, haurtzaroan sortu eta gure bizitzan zehar lagun izan ditzakegun beldurrei heldu nahi die. Beldur barregarriak, bitxiak edo ikaragarriak, beldur pertsonalak edo taldekoak, baita beldur berriak ere, pandemiaren ondorioz haurrengan indarra hartu dutenak. Beldurak, azken finean.

Musika eta ikus-entzunezkoa lagungarri izango dira beharrezkoak diren atmosferak sortzeko, geure beldurak ezagutu, haiei aurre egin, elkarrekin bizi eta geure beldurren golkorako barre egin ahal izateko.

Eta Marie Curiek zioen bezala:

*Bizitzan ez dugu ezeren beldur izan behar, ezezaguna den hura ulertu baizik. Orain gehiago ulertzeko unea da, ondorioz beldur gutxiago izateko.*



Beldurra librea da, ezkutukoak diren alderdietan bizi da, baina baita agerikoetan ere. Beldurra guztiaren gainetik gailentzen da eta beldur batzuek adoretuenak ere geldiarazten dituzte haien aipamen hutsarekin.

Abentura dibertigarri honetan, gure bi zientzialariei haien gorabeheretan lagunduko diegu, bilaketa batean murgilduta, itsututa dabiltzan bi espezialista hauek **beldurraren formula aurkitu behar dute, hura ulertzeko eta barneratzeko**. Zeintzuk dira osagaiak? Zein modutan hedatzen da? Txertorik ba ote du?

Esperimentuetan egoera dibertigarriak, bitxiak, magikoak sortuko dituzte, eta, gure begien aurrean, guztiok mehatxatzen gaituen beldurren bat edo beste ere agertuko da.

Muntaia dibertigarria da, konplexurik gabea, beldurra bezalako gai bat modu konstruktiboan jorratzen duena; izan ere, harekin bizi behar badugu, zergatik ez ondo moldatu?

Ikus-entzunezko asmo handiko muntaia, non emanaldiak, irudiak eta musikak konpainiaren aurreko ekoizpenen ibilbidea jarraitzen duten: "**Martinaren parke fantastikoa**" edo "**Babian zaude!**".



## Ikuskizunak...

- 60 minutu irauten du eta 6 urtetik gorako haurrentzat gomendatzen da.
- Espazio eszenikoetarako Gida pedagogikoa eta ikastetxeetan lan egiteko Unitate didaktikoa eskaintzen ditu.
- Informazio guztirako eta ikuskizuneko abestietarako sarbidea duen QR bat partekatzen du, jendeak bere etxetan gozatzen jarrai dezan.
- Taldeak proiektorea eta haririk gabeko mikrofonoa eskaintzen ditu.



## Gurekin daude abentura honetan

Aktoreak:

Iker Bengotxea eta Xabier Artieda

Dramaturgia eta zuzendaritza:

Ana Maestrojuán

Argiztapenaren eta proiektzioen diseinua:

Koldo Taínta

Figuringilea:

Edurne Ibáñez

Konpositorea:

Gorka Pastor

Eszenografia: **Koldo Taínta, Edurne Ibáñez eta Producciones Maestras**

Produkzioa:

Ángel García Moneo

Itzulpena:

Izaskun Mujika

Abestien egokitzapena:

Iker Bengotxea

Diseinu grafikoa:

El Colectivo



**NIRE BELDURRIK  
MAITEENAK**



**PRODUCCIONES  
MAESTRAS**

### Kontaktua

Ángel García Moneo - T. 650 88 70 44  
angel@produccionesmaestras.eu  
[www.produccionesmaestras.com](http://www.produccionesmaestras.com)

